

ITALIKAKO ONDAKIÑAI.¹



Onešek dira Fabio gure damu mingotzak,
 Orain kanpoak dakutsuz soillik mendiskak motzak,
 Zeñtzuk zirean len Italika otsdun andia,
 Zipion baten kolonia on garailaria:
 Lurrean dago izugarrizko muru sendua,
 Gaur da bakarrik ondakiñezko meta nastua,
 Illunduteko biotz osua,
 Bertako jente ezi eziñak,
 Ichirik dagoz gomuta miñak,
 Umant andiak zerren nun diran utsak egiñak,
 ¿Nok esan daike zelai onetan zala plazea?
 ¿Zeñek arago zala eleišu bat eskergea?
 Euren markarik ezin baleite billatutea?
 Jimnasia ta termen lekuan dot ikusiten
 Errautsezko dan odei pillo bat egan egiten,
 Torre goratsu aišeentzako burlalariak
 Zori dongeak bota ebazan arras guztiak.
 Egiaz, izan bajaken bere lotsagarria,
 Au zan Goijaunen² anfiteatro arrigarria,
 Jaramagoak iragarten dau bere patua,
 Dagoalako birrindu, austu ta zeatua.
 Esan egizu denporearen kontatzallea,
 Lengo suerte ona aña jakon orain dongea,
 Erria zana, gaur ondartzea,
 ¿Zelan eremu da aurkietan?

(1) Traduccion libre de la cancion *A las ruinas da Itálica*, de Rodrigo Caro.

(2) Goijaunak=los dioses.

¿Ez dala jente otsik sometan?
 ¿Abere oker areek nun dira egun onetan?
 ¿Nun da jazarra zale gorputzez jantzi bakoa?
 ¿Zertan jarri da burrukarako len zan lekua?
 Uts utsik dago inor bagarik gaur deslaitua,
 Alegere zan toki ederra jaku tristetu,
 Lengo boz gozo entzutekoak dira igestu,
 Añ gauz andiak auts biurturik ikusitean,
 Damun samin bat iragoten jat errai artean.

Emen jayo zan chimista sutsu gerrarakua,
 Garailari zan aita erritar Españakua,
 Trajano umant azkar ain dontsu bigun ta zurra,
 Noren aurrean auspez jarri zan osorik lurra,
 Zeñen menpean eukan Eguzki-jayo-lekua,
 Ichaso kadistarrak bere bai bustitakua,
 ¡O! erramu ta jazmin ortua!
 Gaur da emenche pozu tokia,
 Loratsu zana nartza sasia,
 Zesarren eche lekuan dakust muskertegiak.
 Ill ziran, bada, aginpidedun Zesar andiak,
 Eurak eukezan jauregi eta lorategiak,
 Baita izenak jarri jakezan marmol argiak,
 Elio-Adriano, Silio eta Teodosioak,
 Euki ebezan marfil ta urrezko seaska arroak,
 Bilinbolaka emendik oso ondatu ziran,
 Ez etorteko sekula bere atzera biran.

Jarri Fabio, zure begiak eta negarrik,
 Ezin badozu begira zenbat kale botarik,
 ¡Zeinbat marmolez eindako arku oso triskauta!
 ¡Zeinbat talluzko irudi eder bardin puskauta!
 Nun Nemesisek diran zearo lurrerratuak,
 Zeintzuen jabe ospetsu eta anchiñakuak,
 Dagoz isill ta obipetuak;
 Troya, zeukana gora burua,
 Ikusgarri zan zure murua,
 Erroma zure izena bere ya da aztua,
 ¡O! jayoterri goijaunen eta erregiena,
 Lege zuzenak balio ezer ez eutsuena,

Atenas argi, ¡o! Minerbaren bizitokia!
 Jakituriaz gizaldi danen gomutgarria,
 Gaur autsa zara, ta bakar leku uts bat andia
 Zu jakitun, da, bestea barriz sendoa izanda,
 ¡Ai! ez eutsuen adoak artu itzalik bada!

Atrakaziño¹ berriz ¿zergatik nekau burua
 Geituagorik ichi gurarik gure damua?
 Naikoa dogu orain artean gertatu dana,
 Zergaitik emen dakusgun keia, dakusgun garra,
 Entzuten doguz negar eta dei korrosatsuak,
 Areen jenio ta eurak euken erlijinuak,
 Samurtzen ditu euren auzuak,
 Eta diñoe ikaratuta,
 Gau illunean naibagetuta;
 «Ai! Italika gurea dogu desagertuta!
 Jausi zan, jausi Italika, bai, oso ondatu»;
 Baso orritsuak jotorritz dabe bardin mintzatu,
 Italikaren izen argiak dauz minberatu,
 Italikaren izen andiak ausi biotzak,
 Aren gomuta miñak eraso itz aiñ mingotzak,
 Bertako milla begintaziño oso nobleak,
 Ipinten ditu malkoan bardin beko jenteak.

FELIPE ARRESE TA BEITIA.



(1) Atrakaziñoa=argumento.